

LAB sindikatuaren ordezkaria den Eulate Zilonizaurrekoetxearekin elkarrizketa

1. Zergatik parte hartzen du LAB sindikatuak aberastasunaren bidezko banaketari buruzko behatoki batean?

Aberastasunaren banaketa LABen aldarrikapen historikoa da eta, behatokiak zer hausnarketa egin zitzazkeen eta guk geuk behatokiari egin diezaiokugun ekarpena garrantzitsua izan zitekeelako. Finean, jendartea aldatzeko, aberastasuna eta lana banatzea ezinbestekoa delako eta horretarako bat egiteak beharko dira, bai hausnarketetarako zein borrokarako.

2. Zergatik dira arazo aberastasun-metaketa eta horrek sortzen duen desberdintasuna?

Argi dago, hainbat herritar pobrezian bizi direla, batzuei lanerako eskubidea errespetatzen ez zaielako eta, gero eta gehiago dira, lanean egon arren ere, soldata miserableak tarteko, gero eta gehiago dira pobrezian bizi diren langileak. Gainera, ezin dugu ahaztu asko eta asko direla, lan eginagatik ere lan hori aitortzen ez zaizkien langileak (batez ere feminizatu diren lanak; emakumeak) eta pertsona guzti horiek ez dute ezta soldatarik ere ez.

Bestetik, ordea, aberastasun pilaketa, irabazi handiak, jabetzak... Gero eta esku gutxiagotan pilatzen ari da.

Hau da, herri langilea gero eta pobreagoa den bitartean; gutxi batzuk gero eta aberatsagoak dira. Gainera, politikoki hartutako erabakiek eta inposatu zaigun sistema, gutxi horien neurri egina dago. Denok duintasunez bizi nahi badugu; bizitzari dagokion garrantzia eman nahi badiogu; berdintasuna badugu helburu; ezinbestekoa da egoera horiek errotik moztea.

3. Zeintzuk dira planteatutako irtenbideak?

Fiskalitate / zerga politika aldatu behar da, aberastasunaren banaketa oinarrian jarrita.

Lana banatu behar da (gutxienezko lan jarduna 20 ordu / gehienezkoa 35) eta gutxieneko soldata (1200 euro) eta gutxieneko pentsioa (1080 euro).

Politika feministak behar dira (lan guztien aitortza, zaintza eta korresponsabilitate neurri egokiak, soldata arrakalarekin bukatzea, zor patriarkala aitortzea...).

Erabaki asko har daitezke, eta eragile sindikal eta sozialok hainbat proposamen egin ditugu; baina borondate politikoa falta da; sistema eraldatu behar da. Kapitalaren eta bizitzaren artean, bigarren honen aldeko hautu politikoa egin behar da.

Eta, noski, hau guztia lortzeko lan harremanetarako eremu propioa behar dugu; bertan lan eta erabakitzea ezinbestekoa da